

# HDT

Gida didaktikoa

## Hitz egin Dezagun Transexualitateaz



### Gehitu

Euskal Herriko lesbiana, gay, transexual eta bisexualen elkarte

Zabaleta 47 A/B Behegaina 20002 Donostia

[www.gehitu.net](http://www.gehitu.net)

### Errespetuz

Pertsona transexualen integraziorako eta babeserako elkarte

**1. SARRERA**

**2. HELBURU OROKORRAK**

**3. PROPOSATUTAKO JARDUERAK**

**4. 1. SAIOA**

- **IDEIA-JASA**
- **KONTZEPTUAK ARGITZEN**

**5. 2. SAIOA**

- **SOINEKO BERRIA**

**6. 3. SAIOA**

- **TRANSEXUALITATEA GAZTE  
ETA NERABEENTZAT**

**1. dinamika**

**2. dinamika**

**7. BESTE JARDUERA BATZUK**

**8. ESTEKA INTERESGARRIAK**

## SARRERA

Gure gizartean, pertsona transexual/transgeneroek bizi duten errealitatea ez da ezagutzen, eta estereotipo eta estigma negatibo asko daude gaiaren inguruan. Horren ondorioz, pertsona horiek egoera oso zaila eta frustragarria bizi dute; herritar gehienentzat ezezaguna den errealitate bat da.

Argi dago hezkuntzak egiteko garrantzitsua bete dezakeela, eta bete behar duela, etorkizunean errealitate horren normalizaziora iristeko. Eskolaren eginkizuna ikasleek jakinduria osatzen duten ezagutzak bereganatzen dituztela bermatzea da; baina horrez gain, pertsonaren garapen egokia ahalbidetu behar du. Beraz, gizabanako bakoitzaren garapen natural eta librea bermatu behar du, alde batetik, eta bestetik, pertsona guztiekiko errespetuzko eta enpatiazko jarrerak sustatu behar ditu. Orientazio sexualak eta, gure kasuan, nortasun sexualak ezin dute salbuespenak izan printzipio orokor horiei dagokienez.

Badakigu ezjakintasun handia dagoela aztertzen ari garen gaiari buruz, eta Nortasun Sexualarekin eta genero-rolekin zuzenean lotuta dauden egoerek estutasun bizia sorrarazten dutela. Testuinguru horretan kokatzen da ekimen hau; transexualitatea EZAGUTARAZTEA helburu duen ekimen bat da, hain zuzen. Horrez gain, jendea SENTSIBILIZATU nahi dugu, eta BALIABIDEAK eskaini nahi ditugu aipatu ditugun egoerak behar bezala bideratu ahal izateko. Erabat ziur gaude errespetuaren oinarrian ezagutza dagoela, eta beraz, ezagutzak eramango gaituela normalizaziora.

## HELBURU OROKORRAK

### Irakasleak

- ✓ Gaiak duen garrantziari buruz sentsibilizatzea.
- ✓ Gaiari buruzko informazioa ematea.
- ✓ Irakasleen parte-hartzea lortzea arlo horretan, ikasleen aurrean hezkuntza-eragile gisa duten garrantziagatik.
- ✓ Gaiarekin loturiko baliabideak eskaintzea.

### Ikasleak

- ✓ Gazteak Nortasun Sexualaren inguruan sentsibilizatzea eta hezteak.

## PROPOSATUTAKO JARDUERAK

Proposatzen dugun dinamika **hiru** saiotan dago egituratuta. Jarraian azalduko ditugu saio horien helburuak eta jarduerak. Saio bakoitzak **ordubeteko** iraupena du, gutxi gorabehera. Hirurak egin beharko lirateke, bata bestearen ondoren, baina denbora nahikorik ez balego, modu independentean egitea ere posible da. Nolanahi ere, azkeneko atalean beste dinamika batzuk proposatzen dira, eta aurrekoen ordeztu erabil daitezke. Iradokizunak baino ez dira dinamika horiek, eta konplizitatea sortu eta norbanakoaren sormena piztuko dutela espero dugu.

## 1. SAIOA

### Helburu zehatzak

- ✓ Gazteek transexualitateari buruz zer dakiten eta zer pentsatzen duten jakitea.
- ✓ Kontzeptuak argitzea eta estereotipoak baztertzea.
- ✓ Gaiari buruz sentsibilizatzea.

### Jarduerak

- **Ideia-jasa: “Transexualitatea”** Dinamika honen helburua gazteen partaidetza bultzatzea da, gaiari buruz zer dakiten eta/edo zer pentsatzen duten jakiteko. Ideia-jasaren ondoren, ekarpen guztiak azaldu eta aztertuko dira (45’).
- **Kontzeptuak argitzen** Power Point-eko aurkezpen bat egingo dugu, oinarrizko bi kontzeptu azaltzeko: Orientazio sexuala / Nortasun sexuala (15’)

*DVDtik Deskargatu:*

*Materialak → Transexualitatea → Kontzeptuak argitzeko (1.1.2\_eu.pdf)*

Dinamika

IDEIA

JASA

## 2. SAIOA

### Helburu zehatzak

- ✓ Genero-rolei buruzko gogoeta piztea.

### Jarduerak

**Emanaldia:** “Vestido nuevo/Soineko berria” Film labur hori ikusi eta gero, aztertu egingo dugu (13’).

*DVDaren 2. menuan dagoen aukeraren bidez ikus daiteke film laburra*

**Fitxa Teknikoa:** *ekoizlea:* Escándalo Films. *Gidoia eta Zuzendaritza:*

Sergi Pérez. *Aktoreak:* Ramón Novell, Sara Martín, Kevin Puertas, Jordi Gràcia, Mireia Prat, Montse Bernal, Enric Arquimbau.

*Produkzio Zuz.:* Laia Núñez. *Zuzendaritza Lag.:* Elena Trapé. *Arte*

*Zuz.:* Claudia Torner. *Jantziak:* Ester Palaudones. *Argazki Zuz.:* Àlex Sans. *Muntaia:* Liana Artigal. *Soinua:* Eduardo Povea.

*Iraupena:* 13 minutu.

**Sinopsia:** Ihauteri-egunean, mutil bat soineko arrosa batez jantzita azaltzen da eskolan. Horrek iskanbila handia sortzen du bere lagunen artean, eta haietako batzuek “maritxu” deitzen diote. Andereñoa zuzendaritzara joaten da hauraren aitari deitzera, eta galdetzen dio ea zergatik utzi dion umeari horrela jantzita etortzen, bere motxilan dalmata-mozorroa sartu beharrean (ikasle guztiek jantzi behar baitzuten mozerro hori).

## AZTERKETA: GAIARI BURUZKO

### JOLASAK ETA GALDERAK

↳ Zein da film laburraren gaia?

**Helburua:** gai nagusia identifikatzea eta hari buruz gogoeta egitea.

↳ Non ikusten da garbi arazoa? (dalmata-mozorroa motxilan sartuta ikusten den eszena)

↳ Zergatik pizten da horrelako zalaparta?

**Helburua:** gizarteak aniztasunarekiko duen jarrerari buruz gogoeta egitea.

### Rol-jokoa

- Mutilek nesken rola beteko dute eta alderantziz. Hortaz, neskek kulturaren arabera mutilek egiten dutena (edo egin behar omen dutena) antzeztuko dute, eta alderantziz.

**Helburua:** estereotipoak identifikatzea.

- Ikasle bakoitzak kontrako sexuko lagun baten papera antzeztuko du. Bikoteka (mutila/neska), elkarrizketa bat izango dute: mutila edo neska izanda zer egitea gustatzen zaion azalduko diote elkarri.
- Beste ikasle batek (behatzaileak) esaten den guztia idatziko du, geroago eztabaidatu ahal izateko.

### Jokoa amaitu ondoren egin beharreko galderak

- Nolakoak dira gizonak? Eta emakumeak?
- Jokoa antzeztu denak errealitatea islatzen al du? Ordezkatuta edo baztertuta sentitu al dira neskek? Eta mutilak?
- Nork erabakitzen du neskek eta mutilek nola jokatu behar duten? Zer gertatuko litzateke rol horiek beteko ez balira?

↳ Nolako jarrera hartzen du andereñoak?

**Helburua:** transexualitateari buruz hartzea komeni litzatekeen jarrera eztabaidatzea.

Eztabaida sutua pizten bada, moderatzaile bat jartzea komeni da.

↳ Zuzendariaren jokabidea aztertu.

**Helburua:** transfobiari buruz gogoeta egitea.

Nolako jarrera hartzen du zuzendariak? Esaten duena eta nola esaten duen aztertu. Transfobiarik ote dagoen aztertu.

↳ Gurasoen jokabidea aztertu.

**Helburua:** familiak betetzen duen eginkizun garrantzitsuari buruz gogoeta egitea.

- Nolakoa da gurasoen jarrera?
  - ✓ Hasieran / Bukaeran
  - ✓ Jarrera egokiena zein den eztabaidatu.
- Zerk kezkatzen du gehien aita?
  - ✓ Gizartearen presioari buruz gogoeta egin.
  - ✓ Gizabanako bakoitzaren ongizateari buruz gogoeta egin.
  - ✓ Familiak gai honetan duen garrantziari buruz gogoeta egin.
  - ✓ Transexualen arazoei buruz sentsibilizatu.

↳ Nolako jarrera hartzen dute gelako lagunek?

**Helburua:** transexualitatearen aurrean hartu beharreko jarrera eztabaidatzea. Eztabaida sutua pizten bada, moderatzaile bat jartzea komeni da. Moderatzaileak ondorio batzuk aterako ditu eztabaida horretatik, eta gelakide guztiei azalduko dizkie.



### 3. SAIOA

#### Helburu zehatzak

- ✓ Gazteei transexualitatea eta pertsona transexualen errealitatea ezagutaraztea.
- ✓ Transexualitateari buruz sentsibilizatzea.

#### Jarduerak

#### Unitate didaktikoa: “Transexualitatea gazte eta nerabeentzat”

*Materialak → Transexualitatea →  
Transexualitateari buruzko gida (1.1.3\_eu.pdf)*

**Fitxa Teknikoa:** *Marrazkiak:* Aniel-en “Anima fragile”.

*Web orria:* <http://aniel-animafragile.blogspot.com/>

*Testuak:* Lola Martín. *Koordinazioa:* Elena Vergara.

*Maketazioa eta diseinua:* Carlos Payá Brioso.



Gida hau Madrilgo lesbiana, gay, transexual eta bisexualen kolektiboak (COGAM) sortutako proiektua da, eta Kultura Batzordeak koordinatu du Hezkuntza Batzordea eta Arlo Transexualaren Batzordearekin lankidetzan. Bi hizkuntzako argitalpena **Lesbitoria-Gaysteiz Taldeak** egin du, eta Arabako Foru Aldundiak finantzatu du.

*Maketazioa:* Tiktak multimedia.

Dinamika

TRAN

SEXUALITATEA

**Deskribapena:** Gida honek pertsona transexualen errealitatea ezagutarazi nahi die gazte eta nerabeei. Aniel-en “Anima Fragile” komikia eta Lola Martín-en testuak oinarritzat hartuta, gidak erraz ulertzeko moduan azaltzen ditu pertsona horien bizitzako hainbat alderdi. Besteak beste, transexualitatea zer den argitzen du, pertsona transexualek bizi dituzten prozesu fisiko eta psikologikoak deskribatzen ditu, eta familiaren eta gizartearen ikuspegitik transexualitateari nola heldu behar zaion eta berau nola ulertu behar den azaltzen du.

## TRANSEXUALITATEA GAZTE ETA NERABEENTZAT

*Oharra:* Dinamika hau behar bezala egiteko, aipatu den unitate didaktikoa irakurri behar da aldez aurretik.

### 1. dinamika

COGAMek argitaratutako gida irakurri ondoren, harekin lotutako Power Point-eko dokumentu bat ikusiko dugu. Ikasleek dokumentu horretan azaltzen diren zenbait atal bete beharko dituzte. Honela, gidaren funtsezko ideiak gogoratzeaz gain, xehetasun handiagoaz azaldu ahal izango ditugu bere edukiak, egon daitezkeen zalantzak argitzeko.

*Materialak → Transexualitatea →  
Osatzeko jarduera (1.1.4\_eu.ppt) eta Jarduera osatua (1.1.5\_eu.ppt)*

#### Beste aukera batzuk:

- ✓ Talde txikietan, ikasleek informazio hori idatziz jaso dezakete, geroago bateratze-lana egiteko.
- ✓ Aurreko dinamikaren bidez, ikasleen zalantza edo informazio-premia guztiak jaso daitezke, eta geroago, pertsona transexual batek hitzaldi bat eman dezake zalantza horiek argitzeko.

Dinamika 4 diapositibaz osaturik dago. Diapositiba bakoitzean ikasleek bete beharreko atal batzuk daude:

- 1- Sexua:** diapositiba honetan, *sexua* kontzeptuak barne hartzen dituen hiru kategoriak bereizten dira, eta sexu biologikoaren osagaiak deskribatzen dira.
- 2- Transexualitatea:** ikasleek transexualitateari buruz gogoeta egin behar dute, eta zer den azaltzen saiatu behar dute.
- 3- Berresleipen-prozesua:** sexu-berresleipeneko prozesuaren hiru pausoak azaldu beharko dituzte.
- 4- Transexualitatea +/-:** gida irakurri ondoren, ikasleek gogoeta egin beharko dute pertsona transexual baten bizitzan bereziki garrantzitsuak diren alderdi positibo eta negatiboak buruz.

## 2. dinamika

**Horma-irudia:** Talde txikietan, ikasleek “Transexualitatea” gaiari buruzko horma-irudi bat egin beharko dute. Ikasleek transexualitateari buruz duten ikuspegia (edo ikuspegiak) grafikoki irudikatzean datza, beren bizipen pertsonaletatik abiatuta.


Dinamika

TRAN

SEXUALITATEA


## ZINEFORUMA

**MA VIE EN ROSE** Zuzendaria: Alain Berliner - Frantzia/Belgika/Erresuma Batua, 1997



Film honek Ludovic-en istorioa kontatzen du, neska baten pentsamoldea duen mutil batena. Berarentzat, ez dago bere generoa aldatzea baino gauza naturalagorik. Mutiko itxaropentsua eta sentikorra da, eta benetan uste du mirari hori gertatuko dela. Jérôme-z maiteminduta dago; bere eskolako laguna da Jérôme, eta bere aitaren nagusiaren semea. Hasieran dibertsio-iturri baino ez zena irain bihurtzen da, bi mutikoak ezkontuta daudenaren itxurak egiten harrapatzen dituztenean. Ludovic-en familia izugarri ikaratzen da, neska izateko duen gogoia ez delako haur-fantasia huts bat. Bere portaera aldatzen saiatuko dira, erabat alferrik. Egoerak erreakzio biziak eragiten ditu auzokoengan, lagunengan eta irakasleengan, baina ondorioa sakona eta baikorra da.

**NORMAL** Zuzendaria: Jane Anderson, 2002



Irma eta Roy Unserwood senar-emazte langileak eta oso fededunak dira, eta beren zilarrezko ezteiak ospatu berri dituzte. Baina Irmak ez du ezagutzen Royren sekreturik handiena: egiaz, gizon baten gorputzean harrapatutako emakume bat da, eta sexuz aldatu beharra dauka bere bizitzan lasaitasun pixka bat lortu ahal izateko. Royk aurrez aurre izango ditu bere lagunak, lankideak eta baita bere seme-alabak ere, bizi nahi duen bizitza berria azaltzen saiatzen denean.

**TRANSAMERICA** Zuzendaria: Duncan Tucker - Estatu Batuak, 2005



Bere sexu-berresleipen prozesua amaituko duen baginoplastia egin baino astebete lehenago, Sabrina Osbournek (Bree) Toby Wilkins izeneko mutil baten telefono-deia jasotzen du. Tobyk 17 urte ditu eta atxilotuta dago New Yorken. Stanley Schupak-ez galdetzen dio (Bree-ren jatorrizko izena), eta haren semea dela esaten dio. Hasieran, Bree ez du ezer jakiterik nahi seme horretaz, ez baitzekien existitzen zenik ere. Hala ere, terapeutak derrigortu egiten du berarengana joatera, ebakuntza egin aurretik arazoa konpon dezan.

# HDT Bestelako Jarduerak

Filmak  
eta

Dokumentalak

**FROM LUCAS TO LUUS** Zuz.: Charlotte Hoogakker - Holanda - 16'



Zortzi urte zituela, Lucasek neska bat zela jakin zuen. Orain hamar urte ditu, eta bere gelako lagunek badakite zer den genero-disforia. Badakite Lucas beti Luus izan dela, eta naturaltasunez onartzen dute pertsona batzuk beraienak ez diren gorputzetan jaio eta hazten direla. Dokumental hau eskuliburu praktikoa bat

da, eta transexualitatea konplexurik edo arazorik gabe onartzen irakasten digu.

*Oharra: dokumentalean Genero Disforia aipatzen da, baina termino hori dagoeneko ez da erabiltzen.*

**Dokumentala ikusteko:** [Egin klik hemen](#) [Egin klik hemen 2. zatia](#)

### SIRENITO



Film laburra (komedia), Moisés Romera eta Marisa Crespo errealizadoreek egin. 10 sari eskuratu ditu, eta mundu osoko 100 jaialdi baino gehiagotan aukeratua izan da.

Mutiko batek eskolara sirenatxoaz mozorrotuta joan nahi duela esaten dio bere amari, eta horrek susmo txarrenak pizten ditu amarengan.

**Film laburra ikusteko:** [Sirenito](#)

**BOYS DON'T CRY** Zuz.: Kimberly Peirce - Estatu Batuak, 1999



Teena Brandonek beti nahi izan du mutila izatea. Egun batean, beraz, ilea mozteko eta bularrak benda estu batzuekin ezkutatzeko erabakia hartzen du. Bere izen-deituren ordena ere aldatuko du, aurrerantzean Brandon Teena izateko.

Filmak  
eta

Dokumentalak

### MI SEXO Y YO

Espainiako Telebistako “Informe Semanal” programan emandako dokumentala. Emakume zein gizon transexualen testigantzak jasotzen ditu, eta medikuntzaren arloko zenbait adituren iritziak ere bai. Txiki-txikitatik, barruan sentitzen duten gizon edo emakumea egunen batean egia bihurtzea amestu duten pertsonak beren drama latza azaltzen dute.

Dokumentala ikusteko: [Egin klik hemen](#)

### TEST DE LA VIDA REAL

Florencia P. Maranok zuzendutako eta XTVL eta SF Producciones-ek ekoiztutako dokumentala.



Gizon baten eta emakume baten artean, beltza eta zuriaren artean bezain beste ñabardura daude. Genero-aniztasunaren erakusgarri, dokumentalak 5 pertsonen eguneroko bizitza azaltzen digu. Baina bizitza hori ez da edozein gizonen bizitza, eta ezta ere edozein emakumerena.

Dokumentala ikusteko (7 atal): [Egin klik hemen](#)

### NIÑAS TRANSEXUALES

RTVEk emandako dokumentala.

Nortasun sexualaren eta haur transexualen gaia aztertzen du. Jasotzen dituen testigantzek erakusten dutenez, uste baino haur gehiagok bizi dute errealitate hori.

Gizartean piztutako eztabaida handiari, pertsona transexualez osaturiko taldeen ekintza pedagogiko zein politikoari eta diziplina batzuen laguntzari esker (besteak beste, sexologia, psikologia eta antropologia), transexualitateari buruzko informazioa gurasoen eskura dago. Familiak, psikologiak eta hezkuntzak emandako babesari esker, neska-mutiko transexualek libreki eta presiorik gabe gara dezakete beren nortasuna, eta hori oso onuragarria da beren ongizate eta osasun mentalarentzat. Haur transexualek laguntza behar dute, eta hori ezin dute ahaztu ez profesionalak eta ezta administrazioak ere.

Dokumentala ikusteko: [Niñas transexuales](#)

Filmak  
eta

Dokumentalak

### ESTEKA INTERESGARRIAK

#### ELKARTEAK

[www.errespetuz.blogspot.com](http://www.errespetuz.blogspot.com)

[www.carlaantonelli.com](http://www.carlaantonelli.com)

[www.ilotaledo.org.es](http://www.ilotaledo.org.es)

[www.elhombretransexual.org](http://www.elhombretransexual.org)

<http://www.atandalucia.org/>

<http://www.gehitu.net/loader.php?zid=65>

